

## Abenduaren 1en, HERRI-BILERA



**A**benduaren 1en, larunbata, herri-bilera egingo da udaletxean. Goizeko 10etan hasiko da, eta eguerdian, hamaiketako eder batekin eta argazki batekin amaituko da. Baina tartean, herritarren intereseko hainbat gai landuko dira.

Lehenik eta behin, goizeko 10etatik aurrera, Udalak legealdia hasi zenetik egindako ekintzak eta esku artean dituen proiektuak azalduko dizkie herritarrei. Horrez gain, edozeinek izan ditzakeen zalantzak argitzen eta iradokizunak jasotzen ere ahaleginduko da. Azalpenen artean, garrantzi berezia edukiko du **Aizpitan** egiten ari diren **meategien interpretazio guneak**. Urte hasierako martxan jartzeko asmoa dago, eta une honetan proiektua zein fase-tan dagoen azalduko du Udalak.

Herri-bilerako bigarren gai nagusia Gipuzkoako

**Eskola txikien festa** izango da. Zerainen egingo da datorren urteko ekainaren 8an, herriko eskolak 25 urte betetzen dituela aprobetxatuta. Lan ikaragarria eskatzen du festaren antolakuntzak, baina guraso elkarte dagoeneko buru-belarri ari da. Horri lotuta, eguerdiko 12etan, herritarrei festa horren berri emango diete gurasoek; eta era berean, denen laguntza ere eskatuko dute.

**Ondoren hamaiketako eta argazkia.** Herri-bileraren ondoren, hamaiketako izango da. Eta horrekin batera, **herritarren argazkiak** aterako dituzte Aizpitako diaporaman jartzeko. Izan ere, Zeraingo herri-proiektuaren atzean pertsonak daudela azaldu nahi da eta horretarako aterako dira guztion argazkiak.

\*Xehetasun gehiagorekin, herri-bilerako deialdiak etxeetara iritsiko dira datorren astean.



## Azaroan: gaztaina erreak eta taloak



Joan den azaroaren 10en, larunbata, urteroko gaztaina erre eta talo jana antolatu zuten Basarte guraso elkarteek. Azaroko hotzari aurre egiteko ez da plan txarra izaten garaiko jakiak elkarrekin jatea. Bazkal ondo-

ren, Aizpe aldera joan ziren haur eta gurasoak basoak emandako fruituak, gaztainak, biltzera. Ondoren, plazara itzuli ziren eta iluntzerako hasi zuten festa. Batzuek gaztainak erretzen zituzten bitartean, besteek taloei

forma ematen zieten. Bakoitzak bere taloa egin eta jan zuten. Gero danbolinean erretako gaztainak ere izan ziren. Eta iluntzeari amaiera ona emateko, soinu-joleek dantzarako aitzakia jarri zuten.

## Ostatuko ardi-afaria



Urriaren 26an, Ostatu jatetxeak antolatuta ardi-afaria egin zen pilotalekuan. Jan-edana nahikoa izan zen eta umorea ezin hobea. Bertsoan Lizaso eta Colina aritu ziren eta soinua jotzen Xapre eta Jose Antonio. Baina argazkian ikusten den bezala, kompetentzia gogorra eduki zuten.

## Odol-emaileen saria jaso du Jose Antoniok



Otatzako Jose Antonio Iparragirrek 25 odol-emanaldi egiteagatik elkarteak ematen duen saria jaso du. Argazkian Segurako ordezkariarekin.

## Laurkittu

**P**resaka nabil, eta zuzenean Elenari galdetu diot: "zer hitz sartuko genuke, biharko alerako"? "Zaude piska bat -esan dit- laster erantzungo dizut". Halaxe izan da: hitz baten orde hiru eskaini dizkit, zein baino zein deigarriagoak, biharko alerako. Oraingo batekin aski dela, eta lehenengoarekin gelditu naiz: *laurkittu* hitzarekin. Zer esan nahi du hitz horrek? Elenak erantzun argia eman dit: "gure etxean su-egurra, zerratu ondoren sutarako prestatu behar denean, *laurkittu* egiten da. Sagarra ere bai, lau puska egin eta jateko prestatzen denean".

*Laurkittu* da, beraz, hiztegian bilatu beharreko hitza: OEHra joan naiz, besterik gabe, informazio bila. Hots, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Hasieran sorpresa hartu dut: bila hasi eta hitzik agertzen ez. Berehala lasaitu naiz ordea: era horretan ez, baina oso antzeko moduan bai, hor dago hitza, *laurgitu* moduan. Gero, gainera, forma ugari ageri dira bere baitan: *laurkitu*, *laurkitu* eta *laurkittu*. Azken hau Bizkai aldean, bizkaieraz egiten den Gipuzkoan (Oñatin eta abar) eta Bizkai-kutsua duen Goierri honetan ageri da batez ere.

Hitzak zer esan nahi duen begira hasi, eta Elena zuzen dabilela ikusi dut. Horra hiztegiak zer dioen: "ata-razar, despedazar, dividir en cuatro partes". Aurreraxeago, berriz, honela dio: "hacer pedazos, descuartizar" Adibide politak datoz hiztegian. Larramendirenak dira bi hauek: batetik "Te haré tajadas, *laurgituko* haut", eta bestetik "orain *laurgitu* dezagun, gero osatuko degu fueroa".

Denetan ere, argi dago esanahia: lau zati egin. Hitza nondik datorren ere, ez da asmatzen zaila: Lehenengo partean *lau*, *laur* dago. Erdarazko "cuatro, quatre, four, vier". Bizkaian eta Gipuzkoan *lau* da nagusi. Beste zenbait lekutan, berriz, sarriago erabiltzen da *laur*. Hemen ere *laur* hori ez da guztiz ezezaguna, ordea: *ordulaurdena* esaten dugu batetik, bere *r* eta guzti, eta *la(u)rehun* bestetik. Bigarren zatiak lan gehiago ematen



du. Zer da *-gitu,- kitu* hori? Bi hipotesi modu ikusten dira, hori esplika dezaketenak, eta ez dakit zein den zuzena. Ikus ditzagun biak:

**a)** *Laur-etik laurki*, eta gero *laurki + tu*. Badakigu *bi-tik biki* ateratzen dela, *hiru-tik hiruki* eta abar. Kasu honetan, elementu jakin (egur, sagar,..) batetik ateratzen diren lau zatietako bakoitzari, *laurki* (eta hortik *laurgi*) esango litzaioke. Eta gero, jakina, zerbait *laurki* bihurtzea *laurkitu* genuke, zerbait *gorri* bihurtzea *gorritu* den moduan.

**b)** *laurgin-etik laurgitu*, eta handik *laurkitu*. Gogoratu, adibidez, *haurgituko* dago: "está a punto de parir". Horrelakoetan, besterik frogatzen ez den artean, badirudi egin aditzaren *-gi-* aditz-erroa dagoela tartean. Bukaerako *-tu* hori, berriz, aditzak sortzeko atzizki ezaguna dugu: *argitu*, *zuritu*, *gorritu*, *erdibitu*, *garbitu*, *hartu* eta abar. Esandako *-gitu* horren parekoa genuke, azkenik, *-kitu* forma. Batetik besterako aldaeraren arazoia azaltzen ez dakit ordea ondo.

Bi hipotesiotatik, lehenengoa iruditzen zait seguruenak. Segurtasun osorik ezin dut, ordea, eskaini. Hizkuntzalarrien kontu gelditzen da auzi hori argitzea.

Gatozen, azkenik, kontsiderazio soziolinguistikora: zergatik ari da hitz hori galtzen? Zergatik erabiltzen da hitz hori gero eta gutxiago? Hori da kontua, argitu behar genukeena. Bi esplikazio dira, hemen ere, posible. Ikus ditzagun biak:

**a)** aldaketa teknologikoak berrikuntza soziokulturala ekarri du, eta berrikuntza horren haritik ari da *laurkittu* galtzen. Nork egiten du, gaur egun, su-egurra? Eta su-egurra egiten ez bada, zertarako esan behar da Joxemarik, Bixentak edo Ikerrek egurra *laurgitu* (*laurkitu*, *laurkittu*) egin duela? *Laurkittu* galtzarekin batera *pellet*-a ari da zabaltzen, esate baterako.

**b)** Sagarrarekin diferente dela esango didazue, eta ez zaizue arrazoirik falta: orain ere etxe guztietan jaten dela sagarra, eta lehen bezala puskak eginik jaten dela sarri. Hor ez luke beraz hitzak galdu beharrik. Baina hor ere galtzen ari da, itxuraz. Zergatik ari da hor ere hitza galtzen? Ea nor animatzen den galdera horri erantzuten. Gogorik baduzue, hurrengo batean helduko diogu bigarren esplikazio modu horri.

Mikel Zalbide





## Xagu-txoko



Babesetik

URRIA	ast	ast	ast	ost	ost	lar	iga
	1	2	3	4	5	6	7
Euria (l/m)	21	2	30	1	28	0	0
Cº altuena	24	22	23	20	24	19	20
Cº baxuena	20	18	17	15	15	16	15
	8	9	10	11	12	13	14
Euria (l/m)	0	0,25	12	6	0	0	0
Cº altuena	21	20	16	15	15	17	19
Cº baxuena	16	15	14	12	11	11	11
	15	16	17	18	19	20	21
Euria (l/m)	0	0	0	1	0	0	0
Cº altuena	22	22	22	20	16	19	16
Cº baxuena	13	15	12	14	13	8	4
	22	23	24	25	26	27	28
Euria (l/m)	0	3	1,5	0,5	2,25	0	0
Cº altuena	15	16	14	15	15	12	15
Cº baxuena	4	12	12	10	11	10	5
	29	30	31				
Euria (l/m)	7	8	0	GUZTIRA : 123,5 litro			
Cº altuena	16	11	11	ALTUENA: 24º			
Cº baxuena	8	10	10	BAXUENA: 4º			

## Hegoirik gabeko urria

Badaki urrian hegoi haize epelak arboletako hostoak ederki astintzen; baita neguari ihesi doazen usoak ekartzen ere. Aurten, ordea, hego aldeko haize gutxi izan da urrian, eta ehiztarien esanetan, usoak ere ez dira asko izan. Euri puska bat egin du; eta tenperaturak asko hoztu gabe, baina gehiegi berotu gabe ibili dira. Dena den, hil amaierarako basoek udazken kolore polita hartu dute.



## Pilotariak bisitan



Ruben **BELOKI**



Juantxo **KOKA**



Oinatz **BENGOETXEA**



Mikel **UNANUE**

Azaroaren 22an, osteguna, ASEGARCEko lau pilotari handi etorriko dira bisitan Zeraina. Mandio tabernako Josebaren bitartez, Beloki, Unanue, Koka eta Bengoetxea pilotariak herrian izango ditugu. Arratsaldeko 5:30ak aldera etorriko dira eta plazan herriko ume eta gaztetxoekin elkartuko dira. Argazkiak atera eta eurekin egoteko aukera izango dute. Ondoren, frontoira joango dira, eta pixka batean pilotariekin jokatu ahalko dute. Segidan meriendatxoa izango da guztientzat. Pilotariak, berriz, sozidadera joango dira Josebarekin eta herritarrekin afaltzera.

## Santa Zezilia eguna eta koruen kontzertuak

Datorren azaroaren 22an, osteguna, Santa Zezilia eguna da, musikariaren eguna. Hurrengo egunean, ostiralean, Uharka abesbatzakoek, urteroko moduan, entsaioaren ondoren, afari batekin ospatuko dute egun hori.

Bestalde, abenduaren 16an, igandea, goizeko 11:30ean (Meza ondoren) kontzertua izango da Zeraingo Elizan. Herriko Uharka koruak eta Lazkaoko Kantaka abesbatzak kantatuko dute.

## Ur zerbitzuen oharra

2007 urteko hirugarren hiruhilabeteko ura, arazketa eta saneamendu planeko erreziboak etxeetara bidali dira. Edozein erreklamazio 902 30 22 22 telefonoan egin daiteke.

## Gazteen IV. barrikotea

Datorren abenduaren 15ean, larunbata, Zeraingo gazteek laugarren barrikotea egingo dute sozidadean. Urteko sagardo berria dastatuko dute afari eder baten bueltan.